



**2024KO IRAILAREN 16KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko irailaren 16an, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Alkateak dio Euskara arloko dirulaguntzen puntuan onartzeko aurkeztu den proposamen bat, Gerriko Ikerlan bekari dagokiona, bertan behera gelditzen dela zehazteko puntu batzuk daudelako, eta aurrerago aurkeztuko dela berriz bere onarpenerako.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko irailaren 2an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 62 zenbakidun zerrenda ZORTZI MILA SEIEHUN ETA HOGETA ZORTZI euro ETA LAUROGEITA BI zentimokoa (8.628,82 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- 2023KO ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAN ALOKAIRUARENGATIKO HOBARRIA.-

Tokiko Gobernu Batzordeak 2024ko irailaren 2an egin zuen bilkuran, 2023ko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan %50eko hobaria aplikatzea onartu zuen etxebizitza alokatuta duten eta horretarako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonei, horretarako irekitako epean dagokion eskaera egin ondoren.

Gaurko batzordean aurkeztu den proposamenean, beste hiru laguni BERREHUN ETA BAT euro eta HIRUROGEITA HAMAHIRU zentimo (201,73 €) hobaritzea proposatu da, bakoitzari bere espedientean jasotako zenbatekoaren arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, hobari hauek onartzea erabaki du.

Hobari hauek sarrerren aurrekontuko 2 112.02.000.00 partida gutxituz egingo da.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 23-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea irailaren 3tik aurrera, egunean hiru ordu astelehenetik ostiralera, laguntza pertsonalean eta etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunen ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-01 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea onuradunak eskatuta asteen 6 ordutik 4 ordura abuztuaren 1etik aurrera, onuradunaren osasun egoerak hobera egin duelako. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa izango da.
- 24-11-12 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea abuztuaren 1etik aurrera, egunean lau ordu astelehenetik larunbatera. Onuradunaren ekarpena % 15ekoa izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 22-01-015 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 85 €-ko dirulaguntza ematetik, 94 €-ko dirulaguntza ematera pasatzea abuztutik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 212,50 €-ko dirulaguntza ematetik, 235 €-ko dirulaguntza ematera pasatzea abuztutik abendura. Eman daitekeenaren % 85etik % 94ra igotzen da, bizikidetzaren unitateko diru sarreretan aldaketak egon direlako.
- 24-01-004 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea uztailetik, bizikidetzaren unitateko diru aldatu delako.

Iparra Hegoa Programa.-

2024. urteko Iparra - Hegoa Lankidetzaren Programari dagokion dirua modu honetan banatzea proposatzen du Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak:

- 1. DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO MISIO ORDEZKARITZA.** RWANDARWEJOKO UMETXOKOAN EGITASMOA ETA MASAKAKO ESKOLAKO HAINBAT GELA TXUKUNTZEAK. ATE ETA LEIHOAK ALDATZEKO EGITASMOA (RWANDA). **16.000 €.**
- 2. EGOAIZIA.** EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA, ENPLEGURAKO SARBIDEA ETA ERABAKITZEKO AHALMENA SUSTATZEAK (PERU). **4.500€.**
- 3. ETIOPIA UTOPIA FUNDAZIOA.** OSASUN, NUTRIZIO ETA ELIKADURA-LAGUNTZA NESKA, MUTIL ETA EMAKUMEENTZAT (ETIOPIA). **1.500€.**



LAZKAOKO UDALA

4. **LA OTRA MIRADA ELKARTE HUMANITARIOA.** AMATASUNEAN ESPEZIALIZATUTAKO ANBULATORIO-ZENTROA BALIABIDE GUTXIKO EMAKUME ETA HAURRENTZAT (SENEGAL). **4.500€.**
5. **ONG TAUPADAK.** SAN IGNACIO DE MOXOSEKO BIZTANLE GUZTIEN BIZI-KALITATEA HOBETZEA, OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA BERMATUZ (BOLIBIA). **4.000€.**
6. **LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO LUMALTIK HERRIAK ELKARTEA.** HERRI INDIGENEN ETA NEKAZARI ANTOLATUEN AUTONOMIA-PROZESUARI LAGUNTZEA, TEKNIKAK SORTUZ ETA PARTEKATUZ (MEXIKO). **5.500€.**

Berdintasuna.-

Ehoziri langileen topaketan banatzeko opariaren ordainketa, 335,41 €-koa, AZKI emakumeen elkarteari egitea.

Familia laguntzak.-

- 23-15-01 zenbakidun esped.: Uztailetik abendura esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Horretarako aurrekontua 4.040 €koa da.
- 23-15-02 zenbakidun esped.: Uztailetik abendura esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Horretarako aurrekontua 4.397 €koa da.
- 23-15-03 zenbakidun esped.: Esku-hartze psikoterapeutikoa bajaran ematea, egoera aldatu delako.
- 23-15-04 zenbakidun esped.: Uztailetik abendura esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Horretarako aurrekontua 1.831,67 €koa da.

Joxemiel Barandiaran Udal kiroldetik bazkietza eta jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 24-23-04 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldetik urteko bazkietza familiarra ordaintzeko 179,31 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-06 zenbakidun esped.:
 - o Kiroldetik urteko bazkietza kuota ordaintzeko 246,27 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
 - o Uda kanpainako tenis ikastaroa ordaintzeko 29,70 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
- 24-23-10 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldetik urteko bazkietza familiarra ordaintzeko dirulaguntza ukatzea behar den dokumentazio guztia ez aurkezteagatik.

- 24-23-11 zenbakidun esped.: Joxemiel Barandiaran Udal kiroldegiko urteko bazkidetza familiarra eta udako aisialdi zerbitzua ordaintzeko dirulaguntza ukatzea behar den dokumentazio guztia ez aurkezteagatik.
- 24-23-12 zenbakidun esped.:
 - o Kiroldegiko urteko bazkidetza kuota ordaintzeko 246,27 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.
 - o Kirolanitzeko ikastaroa ordaintzeko 254,60 €-ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100 da.

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Gidabaimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntza.-

2024. urtean autoa edo motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik dirulaguntzak ematea. Lau ikasle izan dira, beren espedienteetan dauden datuen arabera, eta 400 € emango zaizkie guztira, bakoitzari 100 € dagozkiolarik.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2024ko aurrekontuaren 1 481.02.335.00 partidatik.

VI.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Antzar konpartsa, Lazkaoko erraldoi eta buruhandi elkarte taldea.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza aurreikusi zen 2024 urterako.

Orain, ordaintzeko falta den dirulaguntzaren %40, 2.000 €-koa alegia, orain ordaintzea onartu da.

Dirulaguntza 2024ko aurrekontuaren 481.10.334.00 partidatik ordainduko da.

Lazkaoko Musika Bandari.-

Talde hau eta udalaren artean izenpetu zen hitzarmenean, talde honentzako egitura garatzeko eta bere ekintzak burutzeko, 5.000 €-ko dirulaguntza aurreikusi zen.

Orain, ordaintzeko falta den %40, hau da 2.000 €, ordaintzea onartu da.



Diru laguntza 2024ko aurrekontuaren 481.07.334.00 partidatik ordainduko da.

Lazkaoko herritarrei eta Euskal Aker taldeari.-

Lazkaoko herritarrek eta Euskal Aker Taldeak Unai Dominguezen omenez 2024ko irailaren 7an ekitaldi ezberdinez osatutako eguna antolatzeagatik, 1.000 €-ko dirulaguntza ematea erabaki da Kultura Batzordeburuak proposatuta.

Dirulaguntza hau aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

Merkatariei 2024ko irekiera eta obregatik.-

Lazkaoko merkataritza eta ostalaritza jardueraren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024rako onartutako dirulaguntzak direla eta (jardueren irekiera eta modernizazioa) jasotako honako eskaeraren ondorengo dirulaguntzaren ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA
Leire Velasco Seisdedos (Sormenetik Haratago) (Obra 1.500, irekiera 1.500 eta errotulua euskaraz 102,40)	3.102,40 €
Idoia Godoy Atxaga (Farmazia) (Obra 246,14)	246,14 €
GUZTIRA	3.348,54 €

Ordainketa 2024ko udal aurrekontuaren 1 471.03.433.01 partidatik egingo da.

Merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko erosketa bonuen 2024ko udazkeneko kanpaina.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2024ko udazkeneko plangintzaren barnean erosketa bonuen kanpaina antolatzeko proposamena egin du Jar-duera Ekonomikoko batzordeak.

Proposamenari erantsitako kanpainaren deialdiak honakoa dio:

**"LAZKAOKO MERKATARITZA ETA ZERBITZU SEKTOREA SUSPERTZEKO
EROSKETA BONUEN 2024ko UDAZKENEKO KANPAINA**

1. artikulua. Xedea.

Erosketa bonuen kanpaina honek diru-laguntza izaera du eta egungo merkataritza ohituraren aldaketa dela eta, Lazkaoko merkataritza eta zerbitzuetako jarduera berreskuratzeko, erosketak herrian bertan egitea sustatuko duen eta herriko familien ekonomia lagunduko duen bonu sistema sortzea du helburu.

Kanpaina honek bonuak jarriko ditu zirkulazioan, herriko establezimenduetan gastatzeko, eta herriko eta inguruko biztanleei aukera emango die bonuak eskuratzeko.

Hauek dira programaren helburuak:

- Herriko establezimenduetan salerosketak piztea, herriko ekonomia bultzatu eta bertako kontsumoa indartu eta sustatzeko.
- Lazkaoko familien ekonomia laguntzea.
- Orokorrean herrian merkataritza bultzatzea.

2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.

Kanpaina honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 20.000 eurokoa izango da, eta hori 2024. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.471.02.433.01 zbki.dun partida, «Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzeko» .

3. artikulua. Ezargari den araudia.

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta Lazkaon merkataritza eta ostalaritza sustatzeko laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2023ko irailaren 25ean onartutakoak.

4. artikulua. Bonuen kopurua eta balioa.

Lazkaoko Udalak 2.000 bonu jarriko ditu salgai 2024ko udaberriko kanpaina honetan.

Bonu bakoitzak 30 euroko prezioa izango du eta aldiz 40 euroko balioa, hau da, 40 euroko erosketa ahalmena emango du.

Bonuak erosteko unean bertan ordaindu beharko dira eta ordainketa sistema banku-txartela izango da.

5. artikulua. Programaren funtzionamendurako ezaugarriak

- a) Bonuak 5 euroko 8 txarteletan frakzionatuta banatuko dira, eta frakzio edo txartel bakoitza zatiezina izango da: erosketa bakoitzean gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da.



Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baina txikiagoa bada diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Hortaz bonu frakzio bakoitza erosketa edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.

- b) Frakzio edo txartel hauetatik 3 edozein saltokitan erabili ahal izango dira, eta beste 5 txartelak janari dendetan izan ezik, gainontzeko guztietan.
- c) Bonuak ezin dira dirutan trukatu eta ez da inolaz ere eskudirurik itzuliko.
- d) Herritar bakoitzak 5 bonu erosi ahal izango ditu gehienez. Bonuak zenbakituta egongo dira eta eroslearen NAN zbkia. jasoko da salmenta unean.

Pertsona batek beste baten izenean bonuak erosi ahal izango ditu honen NANA aurkezten badu, gehienez ere hiru pertsonen ordezkartzan.

- e) Herritarrek programan parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango Lazkaon erroldatuta egotea.

6. artikulua. Bonuen salmenta

Bonuen salmenta udaletxean egingo da, bertako harrera ordutegian. Astelehen goizetan eta ostiral arratsaldetan salmenta plazan egin ahal izango da.

7. artikulua. Kanpainaren iraupena eta izenemateko epea:

Kanpaina 2024ko maiatzaren 6an hasiko da eta ekainaren 14an amaituko da.

Kanpainan parte-hartu nahi duten establezimenduek eskaera egiteko epea martxoaren 22tik apirilaren 10a arte luzatuko da."

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, merkataritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko erosketa bonuen 2024ko udazkeneko kanpainaren deialdia onartzea erabaki du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio egin diren azken adierazpen instituzionalak behintzat Alkateak soilik sinatuta joan direla, eta galdetzen du ea hauek ez ote duten gobernu organu batek sinatuta joan behar, esaterako Tokiko Gobernu Batzordeak edota Ple-noak.

Idazkariak dio informatuko dela eta erantzun bat emango diela.

Amundarain zinegotziak (EH Bildu) galdetu du ea Kutxabankek obra egin dutenean, zaintza-kamara jartzeko baimenik eskatu al duten. Alkateak dio ez dutela espreski eskatu, baina Hirigintza arloari galdetuko zaiola.

Honez gain, errekan piraguismo ikastaroa egiteko jarri zuten sare naranjaren inguruan ere galdetu du. Ea ez ote duten kendu behar. Alkateak erantzun du Kirol koordinatzaileari galdetuko diotela honen inguruan.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita bost direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA

